

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, **Maitasuna adierazteko moduen** inguruko irratsaioa entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. Orain **bi minutu** dituzu galderak irakurtzeko. Irakurri galderak.

Adibidea:

0. Irratiko esatariak zein pentsamendu izan du?

- a. Zer opari eskaini gonbidatu bakoitzari maitemintzeko.
- b. Nola adierazi bere maitasuna bakoitzari.
- c. Gonbidatu bakoitza nora eraman bazkari erromantiko bat egitera.

1. Ugaitzi nola adieraziko lioke maite duela?

- a. Goizeko ordu txikitik, bizitza osorako maitasuna eskainiko lioke.
- b. Eguerdi aldera, belarrira esango lioke.
- c. Goizaldean, berarekin izarrak ikustera gonbidatuko luke.

2. Nola geratu da Ugaitz maitasun hitzak entzun ondoren?

- a. Erabat lotsatuta.
- b. Halakoak entzuten ohitua dagoela dirudi.
- c. Maiteminduta gelditu da.

3. Eta Leireri nola esango dizkio maitasun hitz horiek?

- a. *e-mail* bat bidaliko dio berari ere dantzatzea gustatzen zaiola esanez.
- b. Dantzan elkartzea nahi duela adieraziko dio *e-mail*ez.
- c. Gutun baten bidez dantzaleku batera gonbidatuko du, eta han bere maitasuna adieraziko dio.

4. Zer iruditu zaio Leireri?

- a. Hitzak gustatu zaizkio, baina aurrez aurrekoa nahiago duela adierazi du.
- b. Izugarri gustatu zaizkio hitzak eta esateko modua ere bai.
- c. Hitzak gehiegi gustatu ez bazaizkio ere, esateko modua gutxiago gustatu zaio.

5. Harkaitzi, aldiz, nola adieraziko dio bere sentimendua?

- a. Postal baten bidez, muxu batekin.
- b. Oporretan dagoen lekutik idatziko dio gutuna.
- c. Oporretara joan baino lehen idatziko dio postala.

6. Harkaitzi zer iruditu zaio?

- a. Ez dago bere sentimenduaz ziur.
- b. Ez daki nolako erantzuna emango duen, adierazpena nondik datorren.
- c. Oporretara joango den lekuaren arabera izango dira bere sentimenduak.

7. Zer deitu diote Harkaitzi?

- a. Zokorra.
- b. Lehorra.
- c. Mazoa.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----